

Elkartasun Tonbola:

"Aurten inoiz baino lehenago saldu ditugu 10.000 txartelak"

Alargun talde gisa sortu zenak urteak daramatza laguntza humanitaria ematen duten ermuarrei laguntzen. Gaur egun baina, alargunak ez direnak ere taldean lan egiten dute zailtasun gehien dituzten herrialde eta proiektuetan laguntzeko asmoz. Astero-astero josteko batzen dira, Tonbolan opari erakargarriak egon daitezen. Hamaika laguntzaile dituzte baina! Dohaintzak egiten dituzten partikularrak, hainbat merkataria eta txartel erostera hurbildu zaren zu zeu ere!

- **Noiz hasi eta noiz arte egon da zabalik aurten Tonbola?**

Abenduaren 17tik hasita urtarilaren 3ra arte.

- **Zenbat txartel ipini dituzue salgai? Zenbatetan?**

Euro baten saldu dugu tiket bakoitza. Urtero 10.000 ateratzen ditugu eta guztiak saldu arte egoten gara.

- **Orain arte beste lokal batean egon zarete. Lokal berriaren kokapenak eragina izan du txartelen salmentan?**

Bai. Azken urteetan eliza inguruan egon gara eta bertara hurbiltzen zirenak eza gutzen gintuztelako egiten zuten. Aurten erdigunean egon gara, lehengo Horacio dendan, eta Zubiaurre eta taberna ondoan egoteak eta pasoko lekua izateak jende gehiago guregana hurbiltzera animatu du. Beraz, aurten tiketak arinago saldu ditugula igarri dugu, hau da, egun gutxiago egon gara.

- **Zeintzuk izan dira saririk potoloenak?**

Hainbat izan dira. Aipatze-koak dira bizikleta, futboleko baloia, jostailuzko suhiltzaile kamioia... hauek erakargarriak izan dira umeentzako, batez ere. Nagusientzat ere egon da opari xarmagarria: baserritar jantzia, oso osorik zozketatu zen, azpikogona, zapi, amantal eta guzti, eta bestetik gurutzepuntuz egindako bi mantele-ria. Horiez gain, momentuan saritzen ez ziren txartelak kutxa batera sartu eta lau sari nagusien zozketara sartzen ziren: baserritar arropa (Victor Orbek irabazi du), mikrouhin labea (Gotzone Olabarriak), ordenagailurako boz-igogailuak (Julenek) eta eskuz margotutako mahai zapiak. Azken saridun honekin ez dugu hitz egiterik lortu telefonoa aldatu omen duelako. Alejandro du izena.

- **Zenbat diru jaso duzue guztira?**

9.850 euro jaso dugu eta eskerrak eman nahi dizkiegu boleto eroslei eta opariak eman dizkiguten guztiei.



- **Zein proiektutara bideratuko da dirua?**

Beste herrialde batzuetan gizarte proiektuetan aritzen diren ermuarrei ematen zaie dirua, proiektu horietan laguntzeko asmoz. Aurten Niko Urreta, Garbiñe Esturo, Iñaki Peña, German Saez de Zaitegi, Mireia Suarez eta Hortensia Perosanz izango dira diru hori hainbat proiektutan laguntzeko erabiliko dutenak. Txilen duela urte batzuk lurrikarak sortutako zailtasunei aurre egiteko erabiliko du dirua Urretak. Esturok ere, Txilen laguntzeko erabiliko du Tonbolan lortutako dirua, kasu ho-

rretan txaboletan bizi diren pertsonen osasun baldintzak hobetzeko. Iñaki Peña eta German Saez de Zaitegik Perun dihardute eta bertako haur eta gazteak elikatze eta eskolako materialak erosteko erabiliko dute. Perosanzek Afrikan lagunduko du, Senegalen hain zuzen ere, bertakoek dituzten zailtasunak gainditzeko asmoz. Azkenik Miren Suarezek Kolonbian osasun zerbitzuak hobetzeko erabiliko du dirua. Tonbolan jasotako dirua bost zati berdinetan partitzen da, bost horien artean.

Ane Saénz eta
Igone Amesti

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

Kopi-Fax

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 - Goienkale 12